

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Ikerne Artetxe Zubikarai Kantxopeku

*Ondarroa,
Bizkaia (1932)*

Aurkibidea



Biografia



1932an jaio zen Kantoipen ("Kantxopi"). Arrantzale familiakoa, bizi guztian ezagutu du hur-hurretik arrantza mundua. Bederatzi anai-arreba izan ziren. Gerran, aita frontean zela seme zaharrarekin, ama espetxeratu egin zuten, 2 urteko umea altzoan zuela. Ikerne eta gainontzeko anai-arrebak bakarrik geratu ziren etxean, 13 urteko ahizpa zaharrenaren zaintzapean. [Eulogio Alkorta](#)rekin (Ondarroa, 1932) ezkondu zen. Elkarrizketa elkarrekin egin zitzairen.

Zintak

OND-018

- **Proiektua:** Lea-Artibaiko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Data:** 2011-03-25
- **Iraupena:** 50 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Bilbao Telletxea, Arantza

Pasarteak

1. Kantxopi, lehen Nueva España

- **Erref:** OND-018/002
- **Iraupena:** 0:01:04. **Hasi:** 00:00:45. **Bukatu:** 00:01:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura

Laburpena:

Jaiotza-data eta jaio zan kalearen izen aldaketa azaltzen ditu. Kantxopi kalea, "Kantoipe", Nueva España izan zen Francoren garaian.

2. Sareak bergetan eskegita

- **Erref:** OND-018/003
- **Iraupena:** 0:01:34. **Hasi:** 00:01:49. **Bukatu:** 00:03:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Lan-tresnak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa
- Itsasoa » Lehorreko lanak » Lehorreko lanak

Laburpena:

Ondarroan, goiko aldea aldatu da, mendi aldean etxe asko egin baita. Bergak (makilak) egoten ziren sareak eskegitzeko Kantoipen.

3. Itsasontziak errekan gora

- **Erref:** OND-018/004
- **Iraupena:** 0:00:37. **Hasi:** 00:03:23. **Bukatu:** 00:04:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak
- Herria, azpiegitura

Laburpena:

Elizaren beheko aldean dauden uztaiak mamuen heldulekua zirela esaten zen. Gaur egungo Kantoipe kalean ez zegoen etxerik lehen, erreka zen dena. Goraino heltzen ziren itsasontziak.

4. Arraina kalean lehortzen

- **Erref:** OND-018/005
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:04:00. **Bukatu:** 00:05:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Itsasontzian arraina kontserbatzeko moduak
- Itsasoa » Lehorreko lanak » Lehorreko lanak

Laburpena:

"Despeska" egiten zen kalean. Egurrezko astoetan eskegita lehortzen zen arraina kalean, gero fabriketara bidaltzeko.

5. Italiarrek jarri zituzten kontserba-fabrikak

- **Erref:** OND-018/006
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:05:20. **Bukatu:** 00:06:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Arrain fabrikak

Laburpena:

<p>Bodegetan, gatzetan jartzen zen arraina; arrain-fabrika handiak ere egoten ziren. Italiarrak etorri ziren kontserba-fabrikak jartzera.</p>

Transkripzioa

<p>- Por ejemplo, hor moilla asko dazenak daz tabernak,

baiñe horrek zin arraiñin eitten ebenak biharra, arraiñin, antxoak, salazoi ta horretxek danok.</p>
<p>- Arrain bodegak eta?</p>
<p>- Bodegak, bodegak. Eta, por ejemplo, hamentxe da beste bat edifizio handi-handixe, zubi- zaharretik pasata, hor da edifizio preziosu, hori be dana zan fabrika, dan-dana fabrika, eta salazoi zan dana. Ondarrun fabrika asko euazen.</p>
<p>- Antxoi?</p>
<p>- Bai, antxobi, antxobi, asko-asko-asko. Eta bestia ezautu dot nik honetxik daz ontxe, porture guzela italiano batzuk etorri zin ona, sizilianuk- edo etorri zin, eta ein eben /eiben/ jauntxuk... klaro, bizixe emon otsan /emotzan/ Ondarruai. Ta gero... Danak zin italianuk, e! Bartolo Scola, hori, italianu eta danak, eta bizixe emon otsan /emotzan/. Eta esaten dot / esateot/ akordaten... Bazuze? Halako baten hori, andra bat, fileteri zan, fabrikan eitten eban /etxeban/ ta jaubi enamora zan bertako zaharran semi filetera bateaz, eta danak esaten eben ze, esaten eben /esateben/ danak ze: "Miren Tere –Miren Teresa gakon, Teresa, guapi baiñe neska ederra zan, guapi zan–; zeuk pentsaten bozu zeuri italianu zeuri begire dala, hor lagako zaittu abandonata". Ta jentik komentaixu eitten eban /etxeban/. Eta, beatu, urte batzuk ein eben /eiben/, ezkondu zin eta feliz. Eta horrek euen fabrika bat. Bai. Gero, horrek ein eben bota eta gerokun horrek ipini eben Markina-Etxebarrin fabrika. Klaro, hori gero hori behie dan-dana ein zan panadeixak, etxik eta danak.</p>

6. Motor txikiak ziren denak

- **Erref:** OND-018/007
- **Iraupena:** 0:00:47. **Hasi:** 00:06:50. **Bukatu:** 00:07:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Flota

Laburpena:

Motor txikiak ziren denak, arrastekorik ez. "Miren Kepa" zen euren motor txikia; behin itsasontziko lapikoa etxera eraman zuen aita eta handik jan zuten etxeko guztiek.

7. Denenak ziren bergak

- **Erref:** OND-018/008
- **Iraupena:** 0:00:45. **Hasi:** 00:07:37. **Bukatu:** 00:08:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Lehorreko lanak

Laburpena:

Itsasontzi bakoitzak ez zuen leku jakin bat portuan, ezta berga jakin batzuk sareak eskegitzeko ere.

8. "Despeskan" bergetan

- **Erref:** OND-018/010
- **Iraupena:** 0:01:56. **Hasi:** 00:08:40. **Bukatu:** 00:10:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Lehorreko lanak

Laburpena:

Txitxarroak alde batera eramaten ziren; eta sareak zintzilik zeudela, batez ere emakumeek eta umeek kentzen zituzten haietatik antxoak; lan hori zen "despeska".

9. Andrazkoaren lana Ondarroan

- **Erref:** OND-018/011
- **Iraupena:** 0:00:42. **Hasi:** 00:10:36. **Bukatu:** 00:11:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Itsasoa » Lehorreko lanak » Arrain fabrikak
- Itsasoa » Lehorreko lanak » Lehorreko lanak

Laburpena:

Andrazkoak lan asko egiten zuen Ondarroan: bergetako lanaz gain, atunaren eta antxoen kontserban, besteak beste.

10. Senitartekoen artean egiten zen lehorreko lana

- **Erref:** OND-018/012
- **Iraupena:** 0:00:42. **Hasi:** 00:11:18. **Bukatu:** 00:12:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Lehorreko lanak

Laburpena:

Itsasontziko familiako ume eta andreen artean egiten ziren lehorreko lanak. Geroago antolatu ziren taldeak sareak josteko.

11. Arrautza frijitua saritan

- **Erref:** OND-018/013
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 00:12:00. **Bukatu:** 00:12:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Arrain fabrikak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak

Laburpena:

Antxoa sasoian, eskola utzi eta fabrikara joaten ziren burua kentzera. Amak arrautza frijitua eskaintzen zion saritzat.

12. Antxoari burua kentzen gaztetxotan

- **Erref:** OND-018/014
- **Iraupena:** 0:02:14. **Hasi:** 00:12:50. **Bukatu:** 00:15:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Arrain fabrikak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak

Laburpena:

Hamahiru urte ingururekin joaten zen arrain-fabrikara; eskuak hoztuta egiten zuten lan, baina hala ere, eskolara joatea baino nahiago zuen han aritzea.

13. Jende askori ematen zion lana antxoak

- **Erref:** OND-018/015
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:15:04. **Bukatu:** 00:16:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Arrain fabrikak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak

Laburpena:

Jende askok egiten zuen lan antxoa-kontserban. Etxera ere antxoa asko eramaten zen. Gaztetxo eta umeek burua kentzen zieten eta helduagoek egiten zituzten gainerako lanak.

14. Antxoa tintetatik kopaletetara

- **Erref:** OND-018/016
- **Iraupena:** 0:00:57. **Hasi:** 00:16:34. **Bukatu:** 00:17:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Lexikoa
- Itsasoa » Lehorreko lanak » Arrain fabrikak

Laburpena:

Tinetan gatzetan egoten zen antxoa; handik ateratzen zizkieten kopaletetara (saski biribil txikiak) eta gaztetxoek kentzen zioten burua antxoari.

15. Tamainaren araberako lana

- **Erref:** OND-018/017
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:17:31. **Bukatu:** 00:18:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Arrain fabrikak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak

Laburpena:

Gaztetxo guztiak joaten ziren antxoara, burua kentzera, eskola utzita. Zaharragoek antxoa ontzi handiagoetan sartzen egiten zuten lan, eta emakume beteranoek latetarako xerratzen.

16. Arropa zaharrena lanerako

- **Erref:** OND-018/018
- **Iraupena:** 0:00:59. **Hasi:** 00:18:56. **Bukatu:** 00:19:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Arrain fabrikak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Garbitasun pertsonala

Laburpena:

Ez zuten erabiltzen eskularrurik; arroparik zaharrenak ziren beharrera joateko. Garbitu, hondartzan edo errekan garbitzen ziren.

17. 20 25 zentimo burua kentzeagatik

- **Erref:** OND-018/019
- **Iraupena:** 0:01:11. **Hasi:** 00:19:55. **Bukatu:** 00:21:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Arrain fabrikak
- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak

Laburpena:

Antxoa garaian lan asko egoten zen fabriketan eta asko ziren kontserba-fabrikak, baina indartsuenak italiarrak edo Siziliakoak ziren. Aberastu egin ziren jabeak.

18. Kaminoan paseoan gora eta behera

- **Erref:** OND-018/020
- **Iraupena:** 0:01:34. **Hasi:** 00:21:06. **Bukatu:** 00:22:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:

Paseoa egiten zen, baina kaminoan, ez gaurko tokietan. Alamedatik goiko zinera arte joaten ziren. Elizako ospakizunen inguruan egiten zuten jai.

19. Apezpikuaren aita izateko esperantzan

- **Erref:** OND-018/021
- **Iraupena:** 0:01:02. **Hasi:** 00:22:40. **Bukatu:** 00:23:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:

Oso elizkoia zen aita; hamaika seme-alabaren aita izan zen, eta haurdunaldi bakoitzean seme elizgizonen bat izateko itxaropena izaten zuen.

20. Hogei urterekin gudari

- **Erref:** OND-018/022
- **Iraupena:** 0:00:53. **Hasi:** 00:23:42. **Bukatu:** 00:24:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

Hogei urteko neba borondatez joan zen gudari Itxasalde batailoira. Zazpi neba-arreba gurasorik gabe egon ziren gerra garaian.

21. Ama atxilotu zutenekoa

- **Erref:** OND-018/023
- **Iraupena:** 0:03:00. **Hasi:** 00:24:35. **Bukatu:** 00:27:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

<p>Abertzale gogorra izan zen aita. Euren etxean elkartzen ziren lagunak. Gau batean guardia forala etorri eta ama atxilotuta eraman zuten, bularreko umearekin batera. Hamar hilabete eman zituen Ondarretan.</p>

Transkripzioa

<p>- Gure ama... Gure etxi zan bixkat bera hori... etxe barrun danok giñan abertzalik; ordun ixaten zana, abertzale handiak giñan. E? Eta nire ama zan... aitte esaten eban ez zanela. Nire aitte zan abertzale gogorra, baiñe ama zan bixkat rekete tarteku, baiñe ezkondu zanin-ta bixkat ein zan... aittan gauzak... Eta danok dakau guk euskerazko ixenak. Gure amak ume asko eta etxe barrun [eitten zan] ordun telebisiñoik-eta ez euanetik, geure etxea batzen zan generala, zapatutan eta; bestelan itxosun ebillenin ez, baiñe zapatutan-eta etorten zin geure etxea. Eta halako baten, gabe baten, gabe baten etxin dazela bertan... forala esaten otsen ordun, aguazille izan baik, foralak esaten otsen. Aguazillak be baueuazen, baiñe foralak zin kanpoko gixonak, eta Ondarruko, bertako aguazillak, herriko aguazil batek harei foralai esan otsan /esatzan/ ze gure etxin eitten dizela, bigarregoko pisun ezkerreta, “reuniones clandestinas”. Te esan otsan /esatzan/ ze “reuniones clandestinas?”; "bai". Eta horixe foraloi etorri zan eta esan otsan /esatzan/ ze “?Qué haceis aqui? todos a casa –erdaldunek– todos a casa a su sitio”. Eta etxe barrun bata jun zan beran tokixeta eta sartu eta, bakotxeb tokixeta jun eta segixan, detentziñoi, kartzela.</p>

<p>- Ama?</p>

<p>- Bai. Ama, zazpi ume lagata, aitte eta dana... Aitte, aitte frentin euan ordun. Zazpi ume laga, nire ama, beste andra bat estadun euana, etxe barrutik erun eben bost andra. Etxe barrutik erun eben bost andra. Eta hamentxe euki eben, “errebala txikiñe” hamentxe kartzeli euan ta, eta - nire amak eukan txikixena hamazortzi hillabeteku, neure anaixi, ni zortzigarrena nazena ha beatzi zan. Eta eukan hamazortzi hillabeteku.</p>

<p>- Zeuk lau-bost urte?</p>

<p>- Bai, lau urte nik. Baiñe hori geroku da, hori da gerri urtendaku da hori, baiña geroaku na esaten hori, gerritik honuzkun, porke gerri ein ta gero erun eben. Klaro, Francok hartu ebanin, orduntxe erun eben eta nire anaixik eukiko eban, ba, urte bi eskas edo, behintzat urte bi eskas. Eta bularra emoten otsanetik /emotetzanetik/, erun eban horra, kartzela, kartzela erun eban emoteko bularra. Eta herriko aguazil batek ein otsan /eitzan/, keji emon ebanak, gero enterat zan bera juizixu Ondarretan euki eben Donostin ta, ein otsan /eitzan/ “Ala, etxea!” eta horretxei andriai eta danai argixak amata eta laga eben illunetan kartzelan, eta umi negar eta negar euki eban. Eta hurrengoko egunin, jun zanin aguazille, danetakuk daz ta, esan otsen /esetzen/ ze “Zuek zelanik zaze argirik baik?”, “Es ke horrek ein dosku, Jose aguazillak ein dosku /eizku/ guri argixe kendu”, “Hoba leukie berai eingo balitzake hoixe” eta argixe. Ta handixek hiru egun hortxe, eta erune ben Ondarretako kartzela, eta gure amak eineban hamar hillabete.</p>

22. Hamahiru urteko ahizpak zaindu zituen gazteagoak

- **Erref:** OND-018/024
- **Iraupena:** 0:02:41. **Hasi:** 00:27:35. **Bukatu:** 00:30:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:

Hamahiru urteko ahizparen ardurapean geratu ziren neba-arreba gazteago guztiak. Egunez, senideen etxeetan bazkaltzen zuten, eta gauez elkartzen ziren etxean.

23. Soinerako ezer gabe eta emaztea kartzelan

- **Erref:** OND-018/025
- **Iraupena:** 0:01:14. **Hasi:** 00:30:16. **Bukatu:** 00:31:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

Aita etxera etorri zenean hustuta aurkitu zuen etxea eta emaztea kartzelan. Lagun batek utzitako trajearekin joan zen emaztea ikustera Ondarretako kartzelara.

24. Salatzailea agerian

- **Erref:** OND-018/026
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:31:30. **Bukatu:** 00:33:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

Amak jakin zuen nork salatu zuen. Kartzelatik itzuli zenean ere seme-alabei euskal izenetik deitzea aurpegiatu zion herriko emakume batek.

25. Bodegetan ezkutatzen ziren

- **Erref:** OND-018/027
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:33:40. **Bukatu:** 00:34:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:

Bodegetan ezkutatzen ziren bonbardaketa mehatxua zegoenean.

26. "Reuniones clandestinas" zer zen ere ez zekien amak

- **Erref:** OND-018/028
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:34:50. **Bukatu:** 00:36:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

<p>Amak ez zekien "Reuniones clandestinas" zer zen, eta hori leporatzen zioten. Gorrotoaren ondorioz egindako salaketa izan zen.</p>

27. Hilotza ardo kupelean

- **Erref:** OND-018/030
- **Iraupena:** 0:02:20. **Hasi:** 00:37:47. **Bukatu:** 00:40:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Gaitzizenak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak

Laburpena:

Periko neba okin aritu zen Itxasalde batailoian. Osaba ere gudari, hantxe zauritu zuten. Beste pasadizo bat kontatzen zuen nebak: batailoikoek kupel handi bateko ardoa bukatu zutenean ikusi zuten hilotz bat zegoela barruan.

28. Bederatzi pieza baltsiorako

- **Erref:** OND-018/031
- **Iraupena:** 0:02:24. **Hasi:** 00:40:07. **Bukatu:** 00:42:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

Astean behin musika egoten zen plazan: bederatzi pieza. Urriaren 4an ere egoten zen musika, baina ez zuten dantzarik egiten, eurak ikustera joaten ziren eta frankistak dantza egitera.

29. Aberri Eguna Olatzen

- **Erref:** OND-018/032
- **Iraupena:** 0:00:31. **Hasi:** 00:42:31. **Bukatu:** 00:43:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa

Laburpena:

Olatzera joaten ziren Aberri Eguna ospatzera; han bazkaria prestatu, jan, abestu eta etxera.

30. Arantzazura eta Estibalizera eskursioan

- **Erref:** OND-018/033
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:43:02. **Bukatu:** 00:45:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Zinema
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra
- Aisia

Laburpena:

Zinea egoten zen. Ikerne egunero joaten zen elizara eta elizakoek antolatutako irtenaldietara joaten zen. Begiraleak zituzten, dantzaldietan mutilarekin dantzan eginez gero, zigortzeko. Markinako Congreso Eucarístico-a ere gogoratzen du.

31. Hamalau urte zituela hil zitzaion aita

- **Erref:** OND-018/034
- **Iraupena:** 0:00:36. **Hasi:** 00:45:02. **Bukatu:** 00:45:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Hamalau urte zituela hil zitzaion aita. Ama, aldiz, aitag aurreikusi zuen moduan, askoz geroago hil zen, 95 urterekin.

32. Blanco, rosa eta negro

- **Erref:** OND-018/035
- **Iraupena:** 0:00:41. **Hasi:** 00:45:38. **Bukatu:** 00:46:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Zinema

Laburpena:

Pelikulak hiru eratakoak ziren: blanco, rosa eta negro. Sekula ez zuen ikusi beltzik.

33. Eskutik helduta ezkutuan

- **Erref:** OND-018/036
- **Iraupena:** 0:02:13. **Hasi:** 00:46:19. **Bukatu:** 00:48:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Eliza giroko ospakizunak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Sexua

Laburpena:

<p>Jai handia zen Pazko Eguna. Halako egun batean nebeekin batera hartutako bermutak eragindako mozkorra gogoratzen du. Nobioarekin paseoa herritik kanpo egin behar zen, inork ez ikusteko helduta.</p>

Transkripzioa

- Edukaziñua-ta, zer zan, askoz itxixaua, eta...?
- Lehen eitten zan, lehen eitten zan...
- Mutillekin eta neskak eta...
- Ni joten nitxan Pazko egunin, ba, Ondarrun aberrixa zelebra eitten zan. Eta nik urteten neban. Hori nobixu [neuan]. Ni horreaz hasi nitxan 24 urteaz. 24 urte, gero ezkondu nitxan 28, lau urte nobixotzat, ta horreaz. Baiñe ordun zan e, dana zan ordun e... Pazko egune eta zelebrazioik eta horretxek. Eta baten neu, neure anaixak, Aberri egune zelebreatea, eta beorreaz nebilen etaesan osten /esazten/ ze: "Hermana, guazen!", eta lau anaixaz jun nitxan eguardixan ta hori. Ta ordun bermute eraten zan ba, mozkorra atrapa neban...! neu ez na /ena/ akordaten sekule, gaixotute, mariata etxea. Zer pasaten gaztalakun ta... bermutak eindde hori. Hau etorri gaztan ta ni ez nitxan /enitxan/ kapaz kalea urteteko; urten ein bihir douela, pasieta. Ta ordun pasiari eitten gendun Arta, iñok ez gittun [...], herrixan-ta pentsa be ez, porke agarrati esku ta... Nire anaixak ni horreaz "de brace" ez nttuen /enitxuen/ ikusten, porke bijilaten euazen ba. Eta hogetalau urte! on pentsaten dot ta... baiñe ordun zan... hori, ta ni gaztiena nitxan. Eta begire eta holanik eitten gendun eta horrek eta. Pasieta joten giñanin, Artan zihir, barran zihir jun ixan gaz, baiñe Artan zihir, hantxe geure musutxu batzuk-edo hanntxe emon eta [ya está]. Hori bixkat liberaua zan, porke aurretik euki eban nobixa bi, baiñe neu nitxan moji.

- Berak bazekixan...

- Bai, horrek baekixen, bai; nik ez, nik ez. Ni nitxan moja konpletu, nik errekonozituen dot. Eta nik alabai, nik hogeta bost urte ein dot portun biharra, eta, holanik e, barkuk etorriadako eta arrasteruk etorriadako eta, ba, zain zazenin arraiñan zain biharra eitteko, konto asko esaten dozu / esateozu/. Ta nik hauxe esaten netsen: "Aprobetxa -gaztia esaten netsen-, aprobetxa ahal dozuen guzti, e, ni infantile ixan nitxan ta", ni infantile, infantile. Eta, gaiñea be, neuk bixkat ikusten nebanin plazan, neure hamalau, hamabost urte ta -ez na /ena/ esaten 10 urte-ta, e-, neuk esan albokuai: "Txo, mutillaz estu-estu eindde, pekatu da hori e! -esaten netsan-Pekatu da, txo, holako estutzi e". Ta holakoxe gauzak. Ignorantzixi, nik ez nekixen /enekixen/ zer zan, ixte be ez, ixte be ez. Nik ez neki... batzuk ixaten di abantzauk.

34. Elizak lotuta eta beldurtuta

- **Erref:** OND-018/037
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:48:32. **Bukatu:** 00:49:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Sexua

Laburpena:

Eliza giroan hezi zuten, eta sartutako beldurraz bizi ziren. Sexuari buruzko ezer ez zion inork inoiz azaldu. Lagun arteko elkarriketetan mutila guapoa zen ala ez baino ez zen komentatzen.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-08-24

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com